

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak ostegun honetan Estatuari eskatuko dio autonomia erkidegoetarako ere defizit-helburuaren betearazpena egokitu dezala

Gobernuak, halaber, oinarri zabala duen akordio politiko eta sozial bat bultzatuko du ekonomia suspertzeko foru-plan bat sustatze aldera

Miércoles, 11 de julio de 2012

Asteazken honetan egin den asteko ohiko bilkuraren ondoren, Nafarroako Gobernuak iragarri du bere lehen lehendakariorde Lourdes Goicoecheak defendatuko duela bihar, osteguna, Gobernu Zentralak deitutako Politika Fiskalaren Kontseiluan autonomia erkidegoetarako ere defizit-helburuaren

betearazpenaren egokitzapena, Europar Batasunak xede horretarako Espainiari eman dio urtebeteko luzamendua ezagutu eta gero.

Foru Gobernuak iritzi du Estatuak bere osotasunean, eta horregatik baita autonomia erkidegoak ere, dutela Europar Batasunak finkatutako defizit publikoaren xedea betearazteko betebeharra, eta helburu hori lortzeko emandako urtebeteko atzerapenaz "ezin dela soil-soilik jabetu" Estatuko Administrazio Orokorra, baita nazioaren administrazio-egitura osatzen duten administrazio guztiak ere.

Gainera, Gobernu Bilkura horretan ere Barcina Lehendakariaren proposamena ezagutzera eman da, hau da, Nafarroan oinarri zabala duen akordio politiko eta sozial bat bultzatzea berehala ekonomia suspertuko duen foru-plan bat sustatze aldera eta, haren autonomia fiskalaren babesean, ekonomia suspertzeko neurri-sorta bat ezarriko duena.

Foru Gobernuak iritzi du "herritarrek eta langile publikoek ahalegin handiak hartu dituztela beren gain defizit publikoaren aurka egiteko borrokan" eta adierazi du "ez dituela bere egiten" Rajoy lehendakariak gaur iragarritako zenbait neurri, BEZaren igoera edo langile publikoen soldata-murrizketa esaterako. Dena den, onartzen du zeharkako zergan Nafarroak ezin diela ezetz esan Estatuak agindutako neurriei, eta, beraz, langile publikoen soldata-murrizketa aplikatzeko araua eta hura bere funtzionarioei aplikatzeko modua ezagutzeko zain geratzen da.

Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak defizit publikoari aurre



Nafarroako jauregia.

egiteko beharra berretsi du egiturazko eta garrantzi handiko neurrien bidez. Horren adierazle dira esaterako, Foru Komunitateko enpresa publikoen sarearen berregituratzea onartzea, edo berriki langile publikoen arloan (% 10eko hartutako birjartze-tasa baten onarpena) hartutako neurriak.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak aipatu du Nazioko Gobernuak gaur iragarri dituen neurriak, "oso gogortzat" jotzen dituenak, "herrialdea pasatzen ari den egoera ekonomiko larriaren adierazgarri" direla.